



**EUSKARALDIA**  
*geligarri berezia*



**Azaroaren 20tik abenduaren 4ra, Euskaraldia**

**Herritarren txanda iritsi da**

Kutxabank  
**EUSKARALDIA**rekin



# GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

**noqua**  
Jarraitu gure sare sozialak

Facebook Instagram  
Twitter noqua

[www.noqua.eus](http://www.noqua.eus)

The advertisement features a central graphic with social media icons for Facebook, Instagram, Twitter, and Noqua. Two hands hold smartphones displaying social media posts from 'Noqua Aldizkaria'. The left phone shows a post with the text '#Uztarbil Inauterietik hasiera ezin hobea izan dute Zirimara, Oribeldi Dantza Taldea eta Gaztelekuaren eskutik.' and another post with '#Uztarbil #MBE (mekumean) Zirkua osatzeko dela Sanjuanen konfiantzako eta errespetuko eragotza, silar indartzeko zirkua bot eskuz malla (ir) Sanjuanen Filartekin 16 urteko neska rock'. The right phone shows a post with '140 reproducciones' and 'noquastekaria #Uztarbil Alaitasuna kaleetan berraz Zirimara eta Gaztelekuaren eskutik #noquastekaria... y más'. The background is a colorful, abstract pattern of dots.

# “KRISIARI AURRE EGIN ETA AKTIBATZEKO GARAIA DA”

**E**uskararentzat ez da inoiz bolada errazik izan. Gure historian, euskaldunoi maiz gertatu zaigu, ohiko oztopoei zailtasun erantsiak gehitzea. Debekuei eta jazarpenei egin diegu aurre, eta gerrak, diktadurak eta era guztietako krisiak nozitu ditugu. Baina beti atera gara aurrera, beti egon delako, euskaraz hitz egiten jarraitu nahi izan duen herri bat, eta hizkuntzaren aldeko jarrera aktiboa izan duten herritarrek, egoerarik zailenetan ere, euskarari etorkizun hobea eskaini nahi izan diotenak erabilera eta transmisioa bermatuz eta hauspotuz.

Pandemia honek gogor jo du mundua, gogor jo gaitu gu, eta latza izaten ari da euskararentzat. Kontseiluaren “Geroa euskaratik” txostenaren aurkezpenean esan genuen bezala, egoera honetatik ateratzekotan ezinbestekoa izango da, erakundeek eta agintariek behar berrietara egokitutako euskararen aldeko politikak sustatzea eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzea.

Eta horrekin batera, herritarren jarrera proaktiboa, euskaraz bizi ahal izateko urratsak egiten jarraituko dutenak.

Hizkuntzak komunikatzeko eta komunitateak trinkotzeko dira. Koronabirusak, aldiz, elkarrengandik urruntzera behartzen gaitu, multzo txikiagotan biltzera, eta era guztietako ekitaldiak bertan behera utzi, atzeratu edo egokitzera. Neurri zehatzak hartzen ez badira eta euskaldunok ez badiogu hizkuntzari eusten, joera horiek hizkuntza hegemonikoak indartuko dituzte are gehiago. Egoera honetan euskararen alde jokatzeari, bestalde, bada komunitatearen alde jokatzeari, hau da, hezkuntza inklusiboaren alde egitea, gertuko komertzioa eta sortzaileak babes-



Kike Amonarrizen esanetan, “euskara bizitza sozialaren erdigunera eramatea lortu behar dugu, behar diren segurtasun neurri guztiak hartuz, noski”.

## KIKE AMONARRIZ

**“Oztopoak oztopo,  
euskaraz bizi nahi duen  
eta euskara gero eta gehiago,  
gehiagorekin eta gehiagotan  
egin nahi duen herri hau  
bizirik eta aktibo dagoela  
erakuts dezagun”**

tea... Euskaraz egin eta euskararen alde egotea, denon geroa eraikitzea baita.

Datozen hilabeteotan, gauden egoeran gaudela, euskaltzaleok gure aldarrikapeneekin, baina batez ere, gure praktikekin euskara bizitza sozialaren erdigunera eramatea lortu behar dugu, behar diren segurtasun neurri guztiak hartuz, noski.

Aurtengo Euskaraldia bereziki garrantzitsua ari da izaten helburu horri begira. Milaka eta milaka entitate eta herritar ari dira jada, zailtasunei aurre eginez, ilusioz eta harrotasunez beren euskararekiko atxikimendu praktikoa erakusten. Denon

arte, Euskaraldi hau ere indartsua izatea ari gara lortzen.

Horregatik, Euskaraldian kontzientzia osoz eta inguruan eraginez Ahobizi edo Belarriprest gisa jokatzera animatzen zaituztegu, parte hartzen duzuen entitateetan euskararentzako espazioak sortu eta bultzatzera, zuen etxe eta entitateak Euskaraldiaren banderatzarekin apaintzera, eta abenduaren 4tik aurrera ere Euskaraldiari jarraipena ematera herriz-herri eta auzoz-auzo. Eta horrekin batera, euskal kulturari beste bultzada ematera; ekitaldietara joanez, liburuak edo diskoak erosiz, hedabideak jarraituz, eta batez ere, gozatuz.

Oztopoak oztopo, euskaraz bizi nahi duen eta euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin nahi duen herri hau bizirik eta aktibo dagoela erakuts dezagun.

**Kike Amonarriz Gorria, Euskaltzaleen Topaguneko Lehendakaria.**

# “JANTZI TXAPA ETA EKIN ILUSIOZ HIZKUNTZA-OHITURAK ALDATZEARI”

**E**uskaraldia hastear dugun honetan, Euskal Herriko Ahobizi eta Belarriprestak gogotsu daude. Gehienentzat egun batzuetako hartueman izango bada ere, herrietako lan taldeen hilabeteetako ahalegina azpimarratu behar. Euskaraldiaren inguruko batzordea lan eta lan aritu da urte osoan zehar Usurbilen, eta NOAUA!rekin partekatu nahi izan dituzte bizipenak.

**NOAUA! Euskaraldia antolatzea hilabete luzeetako lana da. Nola moldatu zarete batzordean prozesu osoan zehar?**

**Euskaraldia Usurbil:** Hilabete luzeetako lana izan da, bai. Izan ere, aurreko edizioan ikasitakoak gogoan izan arren, Euskaraldiaren bigarren edizio honek berrikuntzak dakartza. Hala, eginkizun guztiei modu eraginkorrean erantzuteko, egutegi bat osatu genuen, eta une bakoitzeko eginkizunari erantzuten ahalegindu gara.

*“Batzorde irekia da gurea. Lagundu nahi duen orori zabalik”*



“Indarberrituta eta ilusioz ekin genion Euskaraldia antolatzeko erronkari”. Irudian, Euskaraldia Usurbil batzordeko kideak.

Indarberrituta eta ilusioz ekin genion Euskaraldia antolatzeko erronkari taldekide guztiek. Bakoitzak eskaini ahal zezakeena kontuan hartuz aritu gara Euskal

Herri osoko ariketa hau gurera egokitzen. Batzorde irekia da gurea, eta uneoro egin diogu tokia ekimena antolatzen lagundu nahi zuen orori.

## COVID-19AK BALDINTZATURIKO EUSKARALDIA IZANGO DA

**NOAUA! Zein neurritan eragin dio Covid-19ak Euskaraldiaren antolaketari?**

**Euskaraldia Usurbil:** Jakina denez, aurtengoan entitateek ere Euskaraldian izena emateko aukera izan dute, eta, modu horretan, beren euskara-erabilera arazoetako urratsak emateko konpromisoa hartu dute.

Lanketa horren guztiaren erdian harrrapatu gintuen martxoko itxialdiak, eta gure lan egiteko modua aldatu zuen erabat. Bilerak modu telematikoan egin genituen udaberrian, eta herriko entitateei aurrez aurre azalpenak ematea eragotzi zuen egoerak.

Dena den, udazkenarekin batera, au-

rrerz aurreko ekintza batzuk egin ditugu: herritarren izen-emateko mahaiak, txapen banaketa, ekitaldiak... Betiere, segurtasun- eta higiene-neurriak errespetatuz.

Ukaezina da Covid-19aren gaiak gure eguneroko elkarrizketetan hartu duen presentzia eta protagonismoa. Egoera horrek zaildu egiten du Euskaraldia bezalako ekimenak herritarren ahotan egotea eta gaiak publikoki aritzea. Hala, horixe izan da hilabete hauetako gure erronka nagusietako bat.

Kontziente gara osasun egoera larrian bizi garela eta horrek entitateen eta herritarren eguneroko bizitzan



“Enpatiaz jokatu nahi izan dugu eta entitate bakoitzaren erritmoak errespetatzen ahalegindu gara”.

zuzenki eragin duela. Beraz, enpatiaz jokatu nahi izan dugu, eta, esaterako, entitate bakoitzaren erritmoak errespetatzen ahalegindu gara.

# “HERRIAN ZEHAR EHUNETIK GORA ARIGUNE AURKITUKO DITUGU”

**NOAUA! Aurtengo berrikuntza nabarmenetako bat Ariguneen partehartzea da. Nola erantzun diote enpresek ekimen berriari?**

**Euskaraldia Usurbil:** Herrian zehar ehunetik gora arigune aurkituko ditugu. Horrek zer esan nahi duen? Haietan parte hartzen dutenek konpromisoa hartu dutela gune horietan euskaraz lasai hitz egiteko aukera izan dadin; izan ere kide horiek Ahobizi edo Belarriprest izango dira (hau da, euskara ulertzeko gaitasuna dute). Zentzu horretan, aipatzekoa da 51 izango direla kanpo-ariguneak, eta, beraz, haietara jotzen duen edonork izango duela euskaraz aritze-ko parada.

Guztira, 30etik gora dira kanpo- nahiz barne-ariguneak identifikatu dituzten Usurbilgo entitateak: instituzioak, elkarteak, kirol eta kultur taldeak... Era askotako entitateek egin dute bat ekimenarekin. Eskertzekoa eta azpimarragarria da Covid-19ak sortutako egoera honetan ere erakutsi duten gogoia. Agian, nekaezina



Hurbilago Merkatarri eta Ostalarien elkarteko zuzendaritza-taldeak ere Arigunea osatu du. Argazkia: Euskaraldia Usurbil.

izan da beraientzat izena eman bitarteko prozesua. Izan ere, aztertu egin behar izan dute beren zein gunetan kokatzen diren euskara ulertzeko gaitasuna duten langileak edo kideak.

Halere, gure ustetan, horixe bera

interesgarria izan da beraientzat, Euskaraldiak aitzakia eman baitie beren entitateko hizkuntza-erabileraz hausnartzeko eta euskara gehiago erabiltzeko dauden aukerak identifikatzeko.

## MARTXA ONEAN DOA IZEN-EMATEA: “USURBILEN DAGOENOKO IA 500 LAGUN DIRA AHOBIZI ETA BELARRIPREST”

**NOAUA! Ahobizi eta Belarriprest duela bi urte ezagutu genituen, eta aurten ere figura horiek mantendu egingo dira. Nola doa partehartzea edo izen-ematea? Euskaraldia Usurbil:** Figura edo rol horiek ez dira aldatu, ez. Euskaraldiko 15 egunetan herritarrek hartuko duten jokabideari daude lotuta.

Ahobiziek, funtsean, ulertzen duen orori euskaraz egiteko konpromisoa

hartzen dute azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Aldiz, Belarripresten konpromisoa da euskaraz ulertzen dutela adieraztea eta, beraz, eurei euskaraz egiteko eskatzea 15 egun horietan.

Biak ere, ez dira konpromiso makalak. Horregatik, jokabidea ahalik eta erosoan betetzeko, aholkuak edo irizpideak helarazi zaizkie Ahobiziei eta Belarriprestei.

Uneotan, azaroaren 3an, badakigu

Euskal Herriko 70.000 lagun baino gehiagok eman duela izena Euskaraldian. Eta Usurbilen, berriz, ia 500 lagun dira dagoeneko. Neurri onean doa izen-ematea, baina komeni zaigu izen emateko zeregina azken momentura arte ez uzteko dei egitea. Modu horretan, txapak banatzeko sor daitezkeen pilaketak saihestuko ditugu. Azaroaren 19a da izen emateko azken eguna.

# “HERRITAR GEHIAGORENGANA IRISTEN ARI GARA AURTENGO EDIZIOAN”

**NOAUA! Orain arteko datuak eskutan, nolako itxura hartzen diozue aurtengo Euskaraldiari?**

**Euskaraldia Usurbil:** Goiz samar da, bai. Uneotan dauzkagun datuen arabera, Euskal Herrian izena emandakoen %20 inguruk ez zuen 2018ko edizioan parte hartu. Beraz, herritar gehiagorengana iristen ari garela dirudi. Oso positibotzat dugu hori, izan ere, ariketa sozial honen dimentsioa handitzen ari dela adierazten du horrek. Gero eta herritar gehiago ari gara gure hizkuntza-ohiturak aldatzeko saiakera egiten.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, datu kuantitatiboetan baino, adierazle kualitatiboetan dago ekimenaren arrakasta. Hau da, ekimenaren bidez herritar gutxi batzuk beren harreman-sarea euskalduntze hutsa arrakastatsua da Euskaraldiarentzat.

2018an burututako ikerketak adierazi zuen Usurbilen ere lortu zela herritar batzuen harremanetan euskara gehiago erabiltzea. Beraz, aurtengo edizioak ere horretan lagunduko duelakoan gaude.

**Aipatu gabe geratu den zerbait gehiago gehitu nahi?**

Norbaitek pentsa dezake Euskaraldia Usurbilen ez dela behar. Horren aurrean, haxe da gure iritzia:

Uste baino gorabehera gehiago daukagu Usurbilen ere euskaraz normal bizitzen jarraitzeko. Izan ere, gero eta sarriago mugitzen gara herritik kanpora (lanagatik, ikasketengatik, erosketetara...) edota gero eta gehiago dira kanpotik bizitzera edo bisitan hurbiltzen zaizkigunak. Inguru linguistiko aldakor horrek gure eguneroko hizkuntza-ohituratan eragiten du, askotan ohartzen ez bagara ere.

Horregatik, Euskaraldiak gonbidatzen



**“Euskaraz bizitzeko uste baino gorabehera gehiago ditugu Usurbilen ere”**

Euskaraldia Usurbil batzordeko kideek aditzera eman digutenez, “gero eta herritar gehiago ari gara gure hizkuntza-ohiturak aldatzeko saiakera egiten”. Argazkia: Euskaraldia Usurbil.

gaitu gure ohiturei buruz pentsatzera: zein hizkuntza erabiltzen dugu hirira joaten garenean? Euskara ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak dituen bizilagunarekin? Bisitan etorritako turistarekin? Gure telefono mugikorrean? Interneten nabigatzean? Komunikabideak kontsumitzean?

Ondorioz, Euskaraldiak aukera ederra eskaintzen digu, gure etxe eta auzoetan

darabilgun hizkuntzari eusteko eta euskararen aldeko hautua gure herrietako mugetatik haratago hedatzeko:

-Osoki euskaraz bizitzeko inguru gero eta emankorragoa izaten lagunduko digu.

-Denei adieraziko diegu asmo hori: bisitariei zein bizilagunei, lagunei zein ezezagunei.

Jantzi txapa eta ekin ilusioz hizkuntza-ohiturak aldatzeari!

# ‘GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN’, BALKOIAK EDERTZEKO MODUKO BANDERATXOAK

Sentsibilizazio lana sustatzeko asmoz, Euskaraldiak balkoitan jartzeko moduko banderatzxoak plazaratu ditu. Usurbilgo Eroski Cityn eta Laurok liburutegian topatuko dituzu, 5 eurotan salgai. Eta bestela, Euskaraldiaren web orrialdeko dendan, Elkar dendetan edota Berria egunkaria saltzen duten kioskoetan.

Euskaraldiko banderatzxoa zure etxeko balkoian jartzen baduzu, Euskaraldiko produktu-loteen zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.

## Lehiaketako arauak:

- Atera argazkia Euskaraldiko zure banderatzxoarekin.
- Igo zure Facebook, Instagram edo Twitter kontura.
- Ez ahaztu etiketatzea #JantziKaleak
- Listo. Zorte on Euskaraldiko produktu loteen zozketan.

*“Lehiaketa bat jarri dute martxan #JantziKaleak etiketapean”*



Banderatzxoari esker, Euskaraldiko produktu-loteen zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.

## LAUROK, EROSKI CITY ETA URBILEN ESKURA DAITEZKE



Laurok-en Berriarekin batera saltzen dute banderatzxoa. Eroski Cityn eta Urbilgo arreta zerbitzuan ere eskura daitezke banderatzxoak, 5 eurotan.



AURRENA, EZIN ATERA

GERO, EZIN ATERA MUSUKORIK GABE...



HAU ITOLARRIA

...ETA DISTANTZIA



FAMILI BAZKARIAK, LAGUNARTEKO AFARIAK, FESTAK ETA PARRANDAK, DENAK AKABO

OPORRAK, BERTAN

HAU DEK UMO-RIAA





GAUZA BERA  
ESATEN GENUEN  
DENOK



PASAKO  
DA

HAI ERE  
PASAKO DA

HAI  
ERE  
PASAKO  
AHAL  
DA!



BAINA EZ  
ZEN DEN-DENA  
PASA



LIRTE HARTAKO GAUZATXO BATEK  
ARRASTO LUZEA UTZI ZUEN. BIZITZA ALDATU  
ZIGUN, ETA OHITURAK, HARREMANAK,  
GURE EGUNEROKOA...

GOGORATZEN?



EGIA!  
HURA BAI  
HISTORIKOA!



# ARIGUNEAK, IRUDITAN

Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean.





# KATIA IZQUIERDO, BELARRIPREST: “BAI ETXEAN, BAI KALEAN, SAIATUKO NAIZ OHITURAK ALDATZEN”

**A** hobizi eta Belarriprestak txapak hartzen aritu dira azaroan zehar. Kaxkoan, Zubietan, Santuenean bai eta Aginagan ere. Banaketetako batean aurkitu dugu Katia Izquierdo kubatarra, Belarriprest izango da aurtengo Euskaraldian.

**NOAUA! Kubatik Euskal Herrira etorri zinen eta euskara ikasten aritu zara. Noiz iritsi zinen gurera?**

**Katia Izquierdo:** 15 urte daramatzat Usurbilen, baina Euskal Herrian 23.

**Noiz eta zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?**

Nire semea ikastolan hasi zenean, etxeko lanekin lagundu behar niola sentitu nuen, eta horretarako euskara jakitea ezinbestekoa iruditu zitzaidan. Herri giroan ere sartu nahi nuen, eta euskara ulertu. Hasieran semeagatik egin nuen, baina gerora abantaila asko dituela konturatu nintzen. Kontua da lanagatik orain niretzat ez dela posible euskaltegian jarraitzea, eta utzi egin behar izan dut.

**Zenbat urtez aritu zara euskaltegian?**



*“Saiatuko naiz aukera dudanetan euskaraz hitz egiten”*

**“Nahiko ongi moldatzen naiz, eta jendearekin komunikatu naiteke”. Katia Izquierdok azaldu digunez, “batzuetan euskaraz aritzen naiz, eta besteetan gazteleraz”. Argazkian, Euskaraldiko antolatzaileak.**

Bost bat urtez aritu nintzen, baina ez jarraian. Egoeraren arabera izen eman eta utziz ibili naiz. Orain ere ez nabil euskaltegian, lana dela eta. Nire intentzioa zen semeari etxeko lanekin laguntzea, eta

helburu hori behin lortuta hobetu egin dut pixkanaka. Nahiko ongi moldatzen naiz, eta jendearekin komunikatu naiteke. Batzuetan euskaraz aritzen naiz, eta besteetan gazteleraz.

## “2018AN EZIN IZAN NUEN IZENA EMAN ETA BANUEN PARTE HARTZEKO GOGOIA”

**NOAUA! Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?**

**Katia Izquierdo:** 2018an ezin izan nuen izena eman, eta banuen parte hartzeko gogoia.

Gaur ogia erostera etorri naiz eta mahaia ikusi dudanean aurtengoan

parte hartzea aukera paregabea iruditu zait.

**Euskaraz gehiago eta gehiagorekin egiten saiatuko zara, beraz.**

Bai, hori da. Egoera ez da izan zitekeen onena pandemiarengatik, baina saiatuko

naiz aukera dudanetan euskaraz egiten. Semearekin ere saiatzen naiz euskaraz egiten, baina zuzendu egiten dit denbora guztian.

Hala ere, bai etxean, bai kalean, hizkuntza-ohiturak aldatzen saiatuko naiz.

# LEIRE ORBEGOZO, AHOBIBIZI: "OHITURA ALDAKETA EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE"

**E**uskaraldiak norbanakoei eskaintzen dizkien bi rolen artean zabalduena Ahobizi izan da Usurbilen, 2018an bezalaxe. Horietako bat da Leire Orbegozo, mahaian aurkitu du NOAUA!k txapa hartzera joan denean.

**NOAUA! Zergatik erabaki duzu Euskaraldian parte hartzea?**

**Leire Orbegozo:** Duela bi urte ere parte hartu nuen, eta aurtengoan ere hala egitea erabaki dut.

**Ahobizi rola hautatu duzu. Euskaraz lehen hitza, beraz.**

Bai. Nire ama-hizkuntza euskara da, eta beti euskaraz hitz egiten dut. Ez zait gehiegi gustatzen gazteleraz hitz egin beharra. Etxean euskaraz egin ohi dugu, unibertsitatean ere hala egiten dut nire lagunekin. Klasean baditugu batzuk euskarazko taldean badaude ere, gazteleraz aritzen direnak. Horiekin euskaraz hitz egiten dut berdin-berdin, beraiek saiatu behar lukete euskaraz eta ez ni behartu gazteleraz egitera. Euskaraz bizi naiz ia %100ean.

**Ba al duzu pazientziarik Belarriprest euskaldun berriekin?**

*"Ariketa sozial gisa ederra izan zen 2018ko Euskaraldia"*

*"Noizbehinka tokatzen zait euskaldun berriekin hitz egin beharra. Irakasle lanetan aritu baino, entzuten saiatzen naiz, eta ez zuzentzen", Leire Orbegozo Ahobiziak aditzera eman digunez.*

Bai, pazientzia hartzen dut. Nire ustez, euskara ikasten ari direnak edota dakiten apurra erabiltzen saiatzen direnak miretsi egin behar ditugu, eta ez denbora guztian zuzendu eta baztertu. Orokorrean, inguruan ez dut gisa horretako pertsonarik, nire ingurukoek ongi hitz egiten dute

euskaraz, baina noizbehinka tokatzen zait euskaldun berriekin hitz egin beharra. Irakasle lanetan aritu baino, entzuten saiatzen naiz, eta ez zuzentzen. Gazteleraz hala egingo balute gurekin, ez litzazuke gustatuko barre egitea edo uneoro ongi ez dakigula sentiaraztea.

## "EUSKARALDIAN GOZATU EGITEN DUT"

**NOAUA! 2018ko Euskaralditik zerbait ikasi duzu?**

**Leire Orbegozo:** Ariketa sozial gisa ederra iruditu zitzaidan. Batzuetan, euskaldunontzat ez da erraza dendetan edo administrazioan euskaraz egingo duten jakitea, eta beti duda bera sortzen zaigu horrelako egoeretan: euskaraz ala gaztelaniaz hasi?

Halakoetan, ohikoena badaezpada ere gaztelaniaz hastea da. Gaztelerara jotzen duen horietakoa naiz ni ere, eta Euskaraldiarekin konturatu nintzen guk uste baino jende gehiagok hitz egiten duela, edo behintzat ulertzeko gai dela. Zentzu horretan, aurtengoa aprobeztatu nahi dut behin amaituta, beti euskaraz hasteko ohitura hartzeko.

**Zer espero duzu aurtengo Euskaralditik?**

Ohitura aldaketa hori egitea gustatuko litzaidake. Euskaraldiaz gozatzen dut, kalean begirada konplize horiekin eta errealitatearen aurpegi gozoarekin. Hala ere, behin amaituta horri eustea da erronka eta hori jarriko dut helburu gisa.

# “ERANTZUKIZUNA HERRITAR GUZTIENA DA”

**E**snatu naiz kabaret ikuskizuna eskainiko du Andoni Mutiloak azaroaren 28an Sutegin. Zuzendaria bera arituko da aktore lanetan, dantzan eta kantuan. Euskaldun baserriar bat Londreseko underground mugimenduan nahastuko da, eta bi munduen onena azaleratuko du ikuskizunak. Barne aldaketa eta sexu-joera zein identitatearen gaineko hausnaketa sortzeko moduko ikuskizuna izango da. NOAUA!rekin izan da Mutiloa.

**NOAUA! Euskaraldiaren biho-tzean “Esnatu naiz” kabareta eskainiko duzu Sutegin. Zer espero behar du animatzeko asmoa duen norbaitek?**

**Andoni Mutiloa:** Ikusleak une atsegin eta dibertigarria pasa ahal izango du. Baina, batez ere, zer pentsatua emango dion ikuskizuna sortu nahi izan dugu.

**Kabaret kontzeptuak antzerkia, dantza eta musika nahasten ditu. Multidiziplinarra al zaitugu?**

Antzerkia, dantza eta musika oso gustuko ditut. Dantzak izan du lekurik handiena nire bizitzan. Euskal dantzak ikasten hasi nintzen umetan, ondoren ia 15 urte pasa nituen Donostiako Es-



**“Andoni Mutiloak ‘Esnatu naiz’ saioa eskainiko du azaroaren 28an**

“Artista multidiziplinarra baino, kabaretari lotsagabea naiz”, esan digu Andoni Mutiloak.

kola Dantza Taldean eta azken urteetan dantza garaikidea eta ‘kontakt inprobisazioa’ egin ditut batez ere. Antzerkiarekin, berriz, aldizkako harremana izan dut duela gutxira arte. Eta kantatu, egia-ri zor, ez dut ia abestu orain arte. Baina kabaret honetan hirurak batera egiten ditut eta asko gozatzen ari naiz. Beraz, artista multidiziplinarra baino, kabaretari lotsagabea naizela esango nuke!

**LGTBI+ komunitatea askoren ahotan da-**

**goen gaia izan ohi da sarri. Zein da kabareta-ekin zabaldu nahi duzun mezua?**

Oraindik, gaur egun, LGBTI+ kolektiboko pertsona askok euren herritik alde egitea erabakitzen dutela, bertan ezin dutelako modu lasai eta irekian bizi euren nortasuna eta sexu-joera. Hori oso tristea da. Eta erantzukizuna herritar guztiena da. Horregatik *Esnatu Naiz* kabaretaren bitartez arazo hori ikusarazteaz gain, gai horri buruzko hausnarketa egitera gonbidatu nahi ditugu ikusleak.

# “KONTATZEN DUGUN ISTORIOA FIKZIOA DA”

**NOAUA! Euskal Herriko baserri ingurua eta Londreseko underground mugimendua nahasten ditu ikuskizunak. Bi mundu ia aurkakoak dirudite, baina ba al dute zerbait amankomunean?**

**Andoni Mutiloa:** Teorian ez, oso ezberdinak direlako biak. Baina ez ahaztu Londresen atzerriarrez beteta dagoela, munduko txoko ezberdinetatik bertara bizitzera joandako pertsonak. Eta horien artean, euskaldun asko ditugu.

Beraz, bi errealitate horietan jatorri bereko herritarrak bizi dira. Eta hor egon daiteke lotura, pertsonengan.

**Zure pertsonaiekin nolabait identifikatuta sentitzen zara?**

Bai, asko. Ikuskizun honen hasieran Elur ezagutuko dugu. Londresen bizi da, trans kolektiboko artista da eta bere showa du The Pink Flamingo klubean. Baina kabaretak aurrera egin ahala, artista horren atzean dagoen pertsona

ezagutuko dugu: Peio, euskalduna, baserriarra. *Esnatu naiz*-en kontatzen dugun istorioa fikzioa da. Elur, Peioren alter-egoa da. Baina nirea ere bai. Eta ondorioz hiruki bat sortu dugu hiruren artean: Andoni, sortzailea; Peio, pertsonaia; eta Elur, artista. Elur ausarta eta lotsagabea da.

Eta kabareta sortzearekin batera, nire izaeraren alderdi horiei merezi duten lekua eskaintzen ari naiz azken aldiak. Sekulako oparia!

# Amona TOMAXA *Ren* abenturak

Ixabel Agirresarobe  
Iñaki Martiarena "Mattin"



Abenduaren 4an, NOAUA!rekin batera  
Amona Tomaxaren abentura berriak!!

Herritarron borondatea errespetatu,  
**Erraustegirik EZ!**



# Usurbilgo Udala, Euskaraldiarekin bat

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra  
[izenematea.euskaraldia.eus](http://izenematea.euskaraldia.eus)



Usurbilgo Udala